

Mikel Irizar

Ilargia eta harria



ker ez banago, Juan Mari Bandres-
sek erabiltzen zuen ipuina Franco
hil ondorengo lehen mitinetan.
“Gazte bat ilargiaz maitemindu
zen. Eta bere amodio-gutunak mai-
teari helarazteko, pentsatu zuen gutune-
kin harriak bildu eta haiek gorantz jaur-
titzea. Ez zen gutun bakarria ilargira
iritsi, baina arian mutila bihurtu zen
herriko harri-tiratzailerik onena”.

Hau da, helburu ezinezkoen atzetik jar-
duteak izan lezake saririk. Edota hain mai-
tea dudan Kavafisen poeman bezala: abia
zaitez Itakara, han jarri helmuga; baina
bidaian ikasiko duzuna, hori da altxorra.

GIROA

Adierazle askok dio euskal tribuaren etor-
kizunak hausnarketa behar duela: 30 urte-
ren buruan jeltzaleek Ajuria Enea galdu
dute eta sozialistek hartu, inoiz baino jende
gehiago –baita ezker abertzalean ere– ari
da aldentzen borroka armatutik, azken
hamarkadetako diskurtso politikoak zahar-
kitu egin dira denboraren joanean...

Giro ona da ideia eta estrategia berrien
bila abiatzeko, ilargiaz maitemindu edo Ita-
karekin liluratzeko. Arian,
harriak jaurtitzen trebatu gai-
tezke edo itsasoan nabigatzen.

NAZIO/ABERRI

Esan nuen behin irratian zalan-
tzak ditudala nire abertzaletasu-
naz, eta zalapartatxo sortu zen.
Aberri hitzak duen oihartzun
epikoa eta trinkotasun esentzia-
la ez ditut batere gustuko, edo-
zein hizkuntzatan emanda ere.
Eta, garrantzitsuago, aurrera
egiteko oztopo ere bihur daite-
ke terminologia. Esaterako,
“nazio bat gara eta autodeter-
minazio eskubidea dagokigu” ideia erabat
itxia da, hartu edo utzi bakarrik ametitzen
duena, ados nago edo aurka, bai ala ez.
Gainera, historiara jo behar da argudiatze-
ko, eta honezkero jakin beharko genuke
historiak ez digula oraina konponduko.

Oso bestelako musika du honako esal-
diak: “Independentzia nahi dugu komeni
zaigulako, hobeto bizitzeko”.



IDANI BLANCO

INDEPENDENTZIA

Hain da baldarra Espainia euskalduno-
kin, haiengandik askatzeko gogoia pizten
duela. Neurri horretan nengoke ni inde-
pendentziaren alde, ilargi horretaz mai-
temindu naiteke, Itaka horretara abiatu.
Ez hainbeste euskal estatua lortzeko
esperantzarekin –estatu balizkoaren
bertsio guztiak ez ditut gogoko–, baina
bai bidean eraiki dezakegun egitasmo
kolektiboak animatuta.

Ze independentzia, egungo European,
bakarrik lortuko genuke erreferendum
bat irabazita. Eta badakigu zer egin
behar den erreferendumak irabazteko:
diskurtsoak moldatu, ertzak leundu, ilu-
sioa piztu eta lagun asko egin, aurkariak
baino gehiago. Eta niri lan hau interesa-
tzen zait bereziki, helmuga bera –esta-
tua/ilargia/Itaka– baino gehiago.
Komunitatearen trinkotasuna da nire-
tzat benetako altxorra.

KOMENENTZIA

Eta haxe dugu komunitatea trinkotze-
ko itsasgarria, gehiengoak eraikitze-
ko giltza. Historia, kontzientzia eta militan-
tzietatik haratago –ez horiek
gabe, ez horiek bakarrik–
gehiengo komeni zaigunaren
inguruan bihur gaitezke
gehiengo. Eta ez dezagun
ahantzi: gehiengoak ematen
du hegemonia, eta hegemo-
niak biziraupena.

Horretan eman behar
genituzke denbora eta indar-
ra: aztertzen zer den,
inporta zaizkigun gauzen
artean, besteei komeni zai-
ena. Adibide bat, azaltzeko
Katalunian latinoen hizkun-
tza hautuan nola txerta dai-
tekeen komenentziaren ideia.

Gaztela-
niara bultzatzen dituzte katalanaren
aurkakoe, hizkuntza komunaren dis-
kurtsoarekin. Katalan zaleek buelta
eman diote argudioari: “Gaztelaniaz,
beti izango zara haientzat *sudaca* bat.
Aldiz, guretzat, *parles català, ets català*.
Komeni zaizu katalana”.

Esaterako. ■

Hain da baldarra Espainia

euskaldunokin, haiengandik askatzeko gogoia
pizten duela. Neurri horretan nengoke ni
independentziaren alde, ilargi horretaz
maitemindu naiteke, Itaka horretara abiatu